


egungoa

S i n d i k a l H e z i k e t a

**2003 urteko
egoera sozio-
ekonomikoaren
azterketa.**

I A B

Hezkuntza



**2003 urteko egoera
sozioekonomikoaren
azterketa**

Erredakzioa: **Rafa IZQUIERDO**
Oihan OSTOLAZA

EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAIA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2004



2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

PREKARIETATE MARKA BERRIA HEGO EUSKAL HERRIAN.	5
- 2003 urtean patronalak prekarietate marka berria ezarri du	5
- INEMen inskribatutakoen %43 ez dira ofizialki langabetzat hartuak.	7
- 2003 urteko azken hiruhilekoan enplegu baldintzak okertu eta langabezia hazi da.....	11
ERANSKINAK.	13
- Hego Euskal Herriko lan merkatua. Urteko batz bestekoak - EPA	13
- INEMen erregistratutako kontratuak. Hego Euskal Herria, 2003 urtean.	14
- INEMen erregistratutako kontratuak (ehuneko bertikalak). Hego Euskal Herria, 2003 urtean.....	15
- INEMen erregistratutako kontratuak (ehuneko horizontalak). Hego Euskal Herria, 2003 urtean.....	16



Prekarietate marka berria

Hego Euskal Herrian

**2003 urtean patronalak
prekarietate marka berria
ezarri du: Hego EHN
sinaturiko kontratuen %92,2
aldi baterakoak izan ziren**

- Nafarroan kontratuen %9,5 mugagabeak izan ziren; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bataz bestekoa, aldiz, %7,3koa baino ez zen izan.
- Patronalak gehiegi eta larri erabiltzen ditu aldi baterako kontratuak. Honek lan errotazio izugarria sortzen du eta, beraz, lan istripuen arriskua areagotzen du.



2003. urtean 949.000 kontratu inguru erregistratu ziren Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Beraz, aurreko urtearekin alderatuz gero, kontratazioak %5,6 egin du gora. Hala ere, datu esanguratsuena prekarietatearen hazkundera izan da, nahiz eta azken urteetako zifrak ez izan gaitzetzeko errazak. Esandakoaren adibide gisa, aldi baterako kontratazioak %6,3 egin du gora, kontratu mugagabeak %2,2 gutxitu diren bitartean.

Gainera, kontuan hartu behar da iraupen mugatua zuten aldi baterako kontratuen %77k 3 hilabete baino gutxiago iraun zutela eta %98,4ek ez zuela urte bateko iraupena gainditu.

Datu hauek Hego Euskal Herriko langileek jasaten duten lan errotazio altuaren adierazle dira eta oso ondo deskribatzen dute neurri handi batean gure herrian gertatzen diren lan istripu ugariak honelako lan baldintza penagarriek sorrarazten dituztela.

Kontratu mota honekin lan eginez oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren, lanpostu batean beharrezkoa den esperientzia eta gaitasuna lortzea. Arrazoi horren ondorioz, aldi baterako kontratua duen soldatapeko biztanleriak lan istripua edukitzeko probabilitatea bikoitza baino handiagoa da (2,2 aldiz handiagoa); kontratu mugagabea du-

ten langileen istripu arrisku indizea %52,2koa da, eta aldi baterako kontratua dutenena, aldiz, %117,2koa.

Euskal patronalak, bere aldetik, 2004. urterako gomendioak eman ditu honetzeko, eta "merkatuaren aldaketari hobeto egokitzeko xedez, lan malgutasuna handitzera" animatzen du.

Beraz, gaurko egunean prekarietate egoera guztiz larria izanda ere, Confesbask eta CENek egoera hau areagotuko dutela mehatxatu dute; euskal ekonomiak hobekuntza zantzuak erakutsi arren eta enpresen irabaziak 2002. urtekoen hirukoitzak izan arren.

2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

Honen guztiaren ondorioz, 2004. urteko negoziazio kolektiboan gure oinarrizko aldarrikapenetako bat prekaritate eta diskriminazioen aurkako borrokari eutsiko diogu. Era berean, lan malgutasuna areagotzeko mekanismo guztiei ere egingo diegu aurre, mekanismo hauek langileriaren eskubideak eta lan baldintzak zapaltzea daukatelako helburua.

2003. urtean buruturiko kontratazioa zehatzago aztertzen badugu, zera ikus dezakegu: analisi zehatzago batek zera erakusten digu: gizonen kontratuen %8,6 mugagabeak izan ziren, eta emakumeen kasuan, aldiz, kontratuen %7 baino ez ziren mugagabeak izan. 25 urtetik beherako gazteek sinatutako kontratu mugagabeak, kontratu guztien %5,2 besterik ez ziren izan.

Aipa dezakegun datu positibo bakarra da gero eta emakume gehiago sartzen direla lan merkatuan: aldi baterako kontratuen %50 eta kontratu mugagabeen %44,6 emakumezkoek sinatu zituzten eta kontuan hartu behar da 2002. urtean portzentaje hauek %49,4 eta %43,6 izan zirela, hurrenez hurren.

Sektoreei dagokienez, industrian besterik ez da kontratu gutxiago sinatu 2003. urtean 2002. urtean baino. Iaz industrian 2002. urtean baino %4,9 kontratu gutxiago sinatu ziren eta kontratazio mugagabea izan zen kaltetuena, %8,7 gutxitu baitzen sektore honetan sinaturiko mugagabe kopurua.

Kontratazio mota desberdinak aztertuz gero ikus daiteke mugagabe arruntak (aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak) 2003. urtean sinaturiko kontratu guztien %2,3 direla, eta kontratu mugagabeen %30. Gai nontzeko mugagabeek, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotan bonifikazio garrantzitsuak izateaz gain, kaleratzeagatik kalte ordain txikiagoak bermatzen dituztenez, lan baldintza txarragoak eskaintzen dituzte.

Kontratu mugagabeen %44,6 aldi baterakoak mugagabe bihurtzetik dator, hala ere, joera aldaketa kezkarria suertatu da: urte askotan, hauxe da lehenengo aldia mugagabe bihurturiko aldi baterako kontratu kopurua gutxitu egin dela (%-3).

Ekoi zpenagatiko eta obra edo zerbitzuagatiko aldi baterako kontratuak dira bi kontratu mota erabilienak eta aldi baterako kontratazioan lege iruzurra egiteko erabiltzen dituzte. Ekoi zpenagatikoak kontratazio osoaren %38,2 dira eta obra edo zerbitzuagatikoek %35,6.

Patronalak lanpostu iraunkor eta finkoak betetzeko, aldi baterako kontratuak egin izaten ditu eta 2003. urtean "baliabide" hau askoz gehiago erabili du. Beraz, 2004ko negoziazio kolektiboan beharrezkoa izango da aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko konpromisoa adieraziko duten klausulak sartzea.

INEMen inskribatutakoen %43 ez dira ofizialki langa- betzat hartuak

2003. urtean bataz beste 91.185 langabe izan dituzte erregistraturik Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako INEMeko bulegoek. Bestalde, datu ofizial hauen arabera, hamar langabetatik sei izan ziren emakumeak. Baina garrantzitsua da jabetzea INEMek ez dituela langabetzat hartzen bere bulegoetan enplegu eskatzaile moduan izena ematen duten pertsona guztiak.

1985. urteko martxoko Ministerio Agindu batek *Erregistratutako Langabezia* neurtzeko irizpide estatistikoak zehazten ditu; eta irizpide hauetan oinarriturik Hego Euskal Herrian izena emandako pertsonen %43 langabeziaren zifra ofizialetik kanpo dago.

Hasiera batean arrazoizkoa dirudi orain duten lana hobetzeko edo bi lanak batera burutzeko beste lanpostu bat eskatzen duten pertsonak *Erregistratutako Langabeziaren* zerrendetan ez sartzea. Era berean, ulergarria da jubilazio, elbarritasun handi edo erabateko elbarritasunagatik pentsioa jasotzen dutenak ere kanporatzea.

Baina beste lan eskatzaile asko *Erregistratutako Langabeziaren* hileroko estatistiketatik arbitrarioki kentzen dituzte, horretarako arrazoi objektiborik izan gabe. Honela, langabezian dauden pertsonen kopuru ofiziala gutxitu nahi dute arazoaren benetako larritasuna ezkutatzeko.

Hiru hilabete baino gutxiagokorako enplegu koiunturala eskatzen dutenak daude egoera honetan. Irizpide honek ez du zentzurik, Hego Euskal Herrian

HEGO EUSKAL HERRIA - 2003	%	%
Eskariak guztira	%100	
Langabezia	%57,0	
Langabetutzat jotzen ez direnak	%43,0	%100
Geldiarazitako eskariak	%5,5	%12,8
Gizarte lankidetzak	%0,1	%0,2
Jubilatuak	%1,7	%4,1
Enpleguaniztasuna	%0,7	%1,7
Enplegu hobearen bila	%7,5	%17,3
Enplegu koiunturala	%0,8	%1,9
20 ordu baino gutxiagoko lanaldia	%3,7	%8,5
Ikasleak	%2,1	%4,8
Prestazioekin bateragarriak	%6,0	%14,0
T.E.A.S.	%0,0	%0,0
Onartu gabeko lan-txertatze eskaintzak	%1,3	%3,1
Bestelako arrazoiak	%13,6	%31,6

Iturria: INEM

2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa



sinatzen diren kontratuen %92 aldi baterakoak baitira, eta aldi baterako kontratu hauen %77 hiru hilabete baino gutxiagokoak.

Erregistratutako Langabeziaren definizioak astean 20 ordu baino gutxiagoko lanaldia eskatzen duten pertsonak ere ez ditu kontuan hartzen, nahiz eta aldi baterako kontratuen %26 eta mugagabekoen %21 aldi partzialekoak izan. Harrigarria da langabezia neurtzerakoan hain muga estuak ezartzea; eta are eta harrigarriagoa kontuan hartzen badugu EPA inkestan erreferentziazko astean (hau da, inkesta egin aurreko astean) gutxie-

nez ordubetez lan egin duen pertsona hartzen dela "landuntzat.

INEMek langabezia neurtzeko duen era berezian 25 urtetik beherako ikasleak ere ez dira sartzen; ezta adin hori gainditu eta lehenengo lanpostuaren eskatzaile moduan izena ematen dutenak ere. Irizpide honen erabilerak garbi uzten du Enplegu Institutu espainiarak ikasle gazteek egindako lan eskarien kudeaketan duen seriotasun falta.

Hileroko estatistika honetatik desagertzen den beste talde bat astean 20 ordu baino gehiagoko iraupena duten Lanerako Prestakuntza ikastaroetara joan eta lehenengo enpleguaren eskatzaileak direnek osatzen dute. Lan munduan sartu nahi duten gazteak, ikusten dugunez, ez dira INEMentzat langabetuak, eta honek utzikeria adierazle izugarria da.

Aldi baterako lan gaitasunik eza edo mediku bajaren moduko arrazoi justifikatu baten ondorioz lan eskaria geldiarazten dutenak langabeziaren zerrendatik ezabatzekeo dudarik ere ez du izaten INEMek, langabeziaren kudeaketan "aurpegia zurtzeko" duen obsesioaren ondorioz. Baina nahiz eta INEM errealitatea itxuratzen saiatu, garbi dago uste gabeko gertaera hauek ez dutela langabeziaren arazoa konpontzen. Norbaitek Enplegurako Zerbitzu Publikoen ustez bere ezaugarrien arabera "egokia" den lan eskaintza onartzen ez duenean ere gauza bera gertatzen da. Baina "egokia" den edo ez erabakitzerakoan, badakigunez, lan bila dabilen pertsonaren interes profesionalak ez dira kontuan hartzen.

Azkenik, INEMek beste hainbat egoera ere ez ditu kontutan hartzen langabezia estatistiketan; adibidez, aukeraketa prozesu batean parte hartzeko egiten diren lan eskariak, etxean edo atzerrian bakarrik lan egiteko eskariak, ... Beste horrenbeste gertatzen zaie enplegua erregulatzeko espediente baten ondorioz kontratuak momentuz etenda dituzten langileei ere.

Esandako guztiaz gain, lanagabekiaz dauden hainbat eta hainbat pertsona desanimatzen direla kontuan hartzen badugu, eta INEMen ez duela izena ematen lana aurkitzeko itxaropenik ez daukatelako, ondoriozta dezakegu *Erregistratutako Langabeziak* langabeziaren benetako tamainaren zati bat baino ez duela adierazten.

Tranpa estatistikoak instituzionalizatu egiten dira errealitatea ezkutatzeko eta gure lana horren salaketari eustea izango da.

Ipar Euskal Herrian ehundaka langabek galduko dituzte laguntzak

Europar Batasunean ezarri den integrazio ekonomikorako ereduak berebiziko garrantzia eman dio merkatuari, eskubide sozialen inguruko bestelako helburuei lehenetasuna eman beharrean. Lisboako estrategiari ekin zitzaionetik lau urte igaro dira honezkero eta gaur egun Batasuneko estatuek euren merkatuak liberalizatzeko neurriak

areagotzen ahalegiten dabil Europar Kontseilua, euren ekonomia "munduko lehiakorrena" bihur dadin.

Liberalizatzeko prozesu honek produktuen, zerbitzuen eta kapitalen merkatuei ez ezik, lan merkatuari ere eragiten dio. Eta, lan merkatua gero eta gehiago desarautu eta malgutzaz gain, politika sozialak ere gero eta gehiago murrizten dabilta Europa osotik zehar.

Frantziako estatuak ere ekin dio egungo babes eta ongizate soziala desegiteari. Izan ere, iaz, gobernuak lehen urra-tsak egin zituen erretretak murrizteko xedean. Dena den, 2005. urtean ekinen dio egiazki Gizarte Segurantzza berritzeari.

Oraingoan, langabezi sariaren txanda izan da. Frantziako gobernuak patronalarekin eta CFDT, CGC eta CFTC sindikatuekin sinaturiko akordioen ondorioz, Ipar Euskal Herrian ehunaka langabeturi murriztuko zaizkie langabezia-babeseko eskubideak: jaso ohi dituzten diru-laguntzak galdu arte.

UNEDICen¹ iritziz, langabekiaz egonik, langabezi prestazioen onurak jasotzen ari direnen ehuneko nabarmenki murriztu da. %53,7 izatetik, %45,3 izatera igaro dira.

Langabezi sorospena murriztu izana eta hauek eskuratzeko baldintzak zaildu izana Europako Enplegu Estrategia

¹ UNEDIC: langabezi prestazioen sistema kudeatzeaz arduratzen den erakunde paritarioa.

2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

atzerakoiaren ezaugarriak dira. Delako estrategia hau langileak diziplinatzeke eta lan eta soldata baldintza okerragoetan enplegatzeke egin zen.

Bestalde, eta onetsi diren erreformen ondorioz, Elkartasun Laguntzak (ASS) jasotzen dituztenak ere kaltetuko dira larriki. Gaurdanik laguntza hauen iraupena asko jota hiru urtera mugatuko da dagoeneko jasotzen dutenentzako; eta bi urtera eskubide horri lotuko zaizkionentzat. Aitzinean ez zen ezarri gehienezko iraupena laguntza horiei eusteko.

ASSak jasotzeko eskubidea izateko, kontratua amaitzean, aurreko azken hamar urteetan bost urteko lan jarduna justifikatu beharko da gutxienez; eta laguntza guztien artean hileko 949,20 euro kobratu beharko dira (1.491,60 euro bikotea bada). Neurri hau uztaillaren batean sartuko da indarrean, eta Ipar Euskal Herrian laguntza hau jasotzen duten 500 langabeturi gutxienez eraginen die.

Diru-sarrerarik ez duten langabetuak Gutxieneko Gizarteratze Errentari ere (RMI) hel dakizkioke. Delako RMIak %1,5ean handitu du balioa, eta hileko 411 eurokoa izatetik, 418 euro izatera igaro da. Delako diru-kopuruak, hala ere, txirotasun-atalasearen azpitik dirau: hileko 580 eurotan ezarria.

RMIaren onuraduna izateko zera eskatzen da: 25 urtetik nagusiagoa izatea, hileko 418 euro baino gutxiagoko diru-sarrera, eta gizarteratzeko eta lanean txertatzeko konpromisoa onestea.

Berritasun gisa esan, Frantses estatuak nolabaiteko desentralizazioari ekin ondoren, dagoeneko ez zaiola egokitu RMIren kudeaketa: eskuduntza hori departamentu bakoitzeko Kontseilu Nagusiaren esku geratuko baita. Atlantiko aldeko Pirinioen departamentuan 10.000 lagunek jasotzen dute delako RMIa.

Sartu den beste berritasunetako bat Gutxieneko Jarduneko Errenta (RMA) sortu izana litzateke. Hau, gutxienez urte batez RMIren onurak jasotzen dituztenentzat egin da.

RMA laneratze-kontratua da, eta 130 euro gehiagorengatik astean 20 orduz lan egitean datza. Kopuru hau RMItik datozen 418 euroei gehituko zaie. Kontratu mota hau beste sei hilabetez luza liteke, baina ez daiteke bigarren lan batekin meta.

Enpresak 130 eurotako kotizazioa ordaintzera mugatuko dira. Langabetuak RMIa gal lezake baldin eta kontratu mota hau arbuiazen badu. Horrez gain, laneratze-kontratu honek ez du babes sozialeko eskubiderik eragiten, etorkizunean langabezia-sariak eta pentsioak eskuratzeko.

Gutxieneko Jarduneko Errentari ekiteak, beraz, eskulan merkea ekarriko die enpresariei. Hauek, seguru aski, soldata apalenak jasotzen dituztenei ezarriko diete: hala nola, ostalaritza, eraikuntza eta garbikuntzakoei. Ondorio negargarriak ekarriko dizkie enpleguaren kalitateari zein soldatei.

2003 urteko azken hiruhilekoan enplegu baldintzak okertu eta langabezia hazi da

EPAren arabera langabezia 2.900 pertsona inguruan hazi zen Hego Euskal Herriko lurraldeetan 2003. urteko azken hiru hilabeteetan; horren ondorioz lanik gabe, guztira, 108.800 pertsona daude (2002. urteko hirugarren hiruhilekoaz geroztik zifranik altuena) eta langabezia tasa 2 hamarren igo eta %8,6ra iritsi da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, langabezia gutxitu den herrialde bakarra Araba izan da, 1.600 langabetu gutxiago erregistratu baitira bertan. Hala ere, emakumeen langabezia tasarik altuena duen herrialdea izaten jarraitzen du: %13,7.

Sexuaren araberako analisiari dagokionez, gailendu beharra dago gizonezkoak izan direla langabeziaren hazkundera jasanez dutenak; iazko laugarren hiruhilekoan hirugarren hiruhilekoan baino 5.600 gizonezko gehiago zeuden lanik gabe; emakumezkoen langabezia, aldiz, 2.700 unitatetan gutxitu zen. Hala eta guztiz, gizonezkoen langabezia tasa %7,1ekoa izanda, emakumeena %10,7koa da.

Lan munduaren okertze honek okupazioaren bilakaeran ere izan du isla kezagarria. 2003. urteko azken hiruhilekoan 4.600 unitatetan ugaritu zen emakumezkoen enplegua, baina gizonezkoena, aldiz, 9.700 unitatetan gutxitu zen, guztira 5.000 lanpostu baino gehiago galdu ziren. Enpleguaren bilakaera txarrak oso ondorio gogorrik izan ditu gazterientzat; iazko laugarren hiruhilekoan 6.400 enplegu inguru galdu ziren gazteen artean (25 ur-

te baino gutxiagoko gazteen artean), hau da, 3 hilabeteetan gazteen okupazio tasa %6,7 gutxitu zen.

Prekaritatearen ikuspuntutik ere kolektiborik zigortuena gazteak dira; soldatapeko gazteen %68,3k 2003 urtearen amaieran aldi baterako lan harremana baitzuen. Tasa izugarri eta lotsagarri hau soldatapeko emakumeen aldi baterakotasun tasaren (%32) bikoitza baino handiagoa da. Gizonezkoen kasuan, aldiz, portzentaje hau %22koa da.

Datu hauek sortzen duten ezinegonarekin batera, ekonomia eta enplegua berpizteko dagoen konpromisorik eza salatu nahi dugu. Eta hori horrela da bai PNV, EA eta IUk osatzen duten gobernuak eta baita UPN eta CDN-k osaturiko Nafarroako gobernuak ere zero defizitean oinarrituriko aurrekontu politikak diseinatzen dituztelako eta PPk gobernu zentraletik ezartzen duen gastu diziplina darabiltelako.

Jarraibide neoliberal hauek, gastu sozialaren erabilera murrizta larriago-tzeaz gain, ez dute bideratzen sektore publikotik eta inbertsio publikoen bidez ekonomiaren hazkundera laguntzerik.

Bizi dugun egoera ekonomikoa kontuan hartuz gero, are eta larriagoa da alderdi hauen politika ekonomiko axolagabea, berpizte ekonomikoaren adierazle ahulak ez baitira langabezia gutxitzeko adina enplegu sortzeko gai. Horren ondorioz, nahiz eta enpleguaren urte arteko hazkundera %1,7koa izan, biztanleria langabetua 4.000 laginetan areagotu zen, hau da, urte arteko %3,8ko tasan.

2003 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

Eranskinak

HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA.

Urteko batuz bestekoak - EPA

SEXU BLOK	2003	2002	Desb.
LANDUNAK	1.146.775	1.123.550	23.225
LANGABETUAK	105.750	106.350	-600
AKTIBOAK	1.252.525	1.229.900	22.625
LANGABEZI TASA	8,4	8,6	-0,2
ENPELGU TASA	51,1	50,1	1,0
JARDUERA TASA	55,8	54,8	0,9
ALDIKOTASUN TASA	27,0	29,0	-2,0
16 urtetik gorako biztanleria	2.246.050	2.243.400	2.650

SOLDATAPEKOAK	
Guztira	924.725
Mugagabeak	674.800
Aldi baterakoak	249.925
LANGABEZIAN	
Urtebete +	45.075
2 urte +	29.175

EMAKUMEAK	2003	2002	Desb.
LANDUNAK	460.950	437.225	23.725
LANGABETUAK	60.825	66.975	-6.150
AKTIBOAK	521.775	504.200	17.575
LANGABEZI TASA	11,7	13,3	-1,6
ENPELGU TASA	40,0	38,0	2,0
JARDUERA TASA	45,2	43,8	1,4
ALDIKOTASUN TASA	32,9	36,7	-3,7
16 urtetik gorako emakumeak	1.153.550	1.151.275	2.275

SOLDATAPEKOAK	
Guztira	388.925
Mugagabeak	260.775
Aldi baterakoak	128.150
LANGABEZIAN	
Urtebete +	29.075
2 urte +	20.075

GIZONAK	2003	2002	Desb.
LANDUNAK	685.825	686.325	-500
LANGABETUAK	44.950	39.425	5.525
AKTIBOAK	730.775	725.750	5.025
LANGABEZI TASA	6,2	5,4	0,7
ENPELGU TASA	62,8	62,8	-0,1
JARDUERA TASA	66,9	66,5	0,4
ALDIKOTASUN TASA	22,7	23,7	-1,0
16 urtetik gorako gizonak	1.092.475	1.092.100	375

SOLDATAPEKOAK	
Guztira	535.775
Mugagabeak	413.975
Aldi baterakoak	121.800
LANGABEZIAN	
Urtebete +	16.025
2 urte +	9.100

GAZTEAK (<25 urte)	2003	2002	Desb.
LANDUNAK	90.425	95.875	-5.450
LANGABETUAK	24.650	24.450	-200
AKTIBOAK	115.075	120.325	-5.250
LANGABEZI TASA	21,4	20,3	1,1
ENPELGU TASA	33,3	33,3	-0,0
JARDUERA TASA	42,4	41,8	0,6
ALDIKOTASUN TASA	67,5	67,9	-0,4
16 urtetik 25era	271.175	287.700	-16.525

SOLDATAPEKOAK	
Guztira	83.675
Mugagabeak	27.200
Aldi baterakoak	56.475
LANGABEZIAN	
Urtebete +	6.925
2 urte +	4.000

Iturria: INE

INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK
HEGO EUSKAL HERRIA, 2003. URTEAN

KONTRATU MOTA	Guztira	Lehen sekt.	Indust.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	22.052	1.408	4.575	1.589	14.480	15.060	6.992	4.025
MINUSBALIATUAK	415	5	85	40	285	289	126	36
SUSTAPENETAKOAK	18.497	190	3.215	1.096	13.996	5.494	13.003	3.748
MUGAGABE BIHURTUAK	32.915	270	9.273	3.123	20.249	20.075	12.840	7.681
MUGAGABE GUZTIAK	73.879	1.873	17.148	5.848	49.010	40.918	32.961	15.490
OBRA EDO ZERBITZUA	337.566	7.753	38.985	74.123	216.705	205.063	132.503	105.472
EKOIZPENETAKOAK	362.243	3.777	51.211	13.345	293.910	178.304	183.939	132.877
INTERINTATEKOAK	147.889	563	9.134	996	137.196	36.822	111.067	35.898
MINUSBALIATUAK	995	11	305	51	628	637	358	129
LANEAN TXERTATZEKOAK	3.267	78	4	30	3.155	1.531	1.736	564
ORDEZKAPENA (64 URTE)	108	0	44	10	54	75	33	16
ERRELEBU-KONTRATUAK	3.138	10	2.107	147	874	2.538	600	716
ORDEZKAPEN PARTZIALA	3.332	8	2.195	165	964	2.966	366	0
PRAKTIKAK	8.340	23	2.370	886	5.061	4.795	3.545	5.635
PRESTAKUNTZAKOAK	3.554	10	545	917	2.082	2.266	1.288	3.098
GAINONTZEKOAK	4.673	373	324	66	3.910	2.340	2.333	865
ALDI BATERAKO GUZTIAK	875.105	12.606	107.224	90.736	664.539	437.337	437.768	285.270
KONTRATU GUZTIAK	948.984	14.479	124.372	96.584	713.549	478.255	470.729	300.760

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finakoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, dagozkion aldi partzialeko kontratuak hartzen ditu kontuan.

INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (ehuneko bertikalak)
HEGO EUSKAL HERRIA, 2003. URTEAN

KONTRATU MOTA	Guztira	Lehen sekt.	Indust.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	2,3%	9,7%	3,7%	1,6%	2,0%	3,1%	1,5%	1,3%
MINUSBALIATUAK	0,0%	0,0%	0,1%	0,0%	0,0%	0,1%	0,0%	0,0%
SUSTAPENETAKOAK	1,9%	1,3%	2,6%	1,1%	2,0%	1,1%	2,8%	1,2%
MUGAGABE BIHURTUAK	3,5%	1,9%	7,5%	3,2%	2,8%	4,2%	2,7%	2,6%
MUGAGABE GUZTIAK	7,8%	12,9%	13,8%	6,1%	6,9%	8,6%	7,0%	5,2%
OBRA EDO ZERBITZUA	35,6%	53,5%	31,3%	76,7%	30,4%	42,9%	28,1%	35,1%
EKOIZPENETAKOAK	38,2%	26,1%	41,2%	13,8%	41,2%	37,3%	39,1%	44,2%
INTERINITATEKOAK	15,6%	3,9%	7,3%	1,0%	19,2%	7,7%	23,6%	11,9%
MINUSBALIATUAK	0,1%	0,1%	0,2%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%	0,0%
LANEAN TXERTATZEKOAK	0,3%	0,5%	0,0%	0,0%	0,4%	0,3%	0,4%	0,2%
ORDEZKAPENA (64 URTE)	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%
ERRELEBU-KONTRATUAK	0,3%	0,1%	1,7%	0,2%	0,1%	0,5%	0,1%	0,2%
ORDEZKAPEN PARTZIALA	0,4%	0,1%	1,8%	0,2%	0,1%	0,6%	0,1%	0,0%
PRAKTIKAK	0,9%	0,2%	1,9%	0,9%	0,7%	1,0%	0,8%	1,9%
PRESTAKUNTZAKOAK	0,4%	0,1%	0,4%	0,9%	0,3%	0,5%	0,3%	1,0%
GAINONTZEKOAK	0,5%	2,6%	0,3%	0,1%	0,5%	0,5%	0,5%	0,3%
ALDI BATERAKO GUZTIAK	92,2%	87,1%	86,2%	93,9%	93,1%	91,4%	93,0%	94,8%
KONTRATU GUZTIAK	100%	100%	100%	100%	100%	100%	100%	100%

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finakoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, dagozkion aldi partzialeko kontratuak hartzen ditu kontuan.

INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (ehuneko horizontalak)
HEGO EUSKAL HERRIA, 2003. URTEAN

KONTRATU MOTA	Guztira	Lehen sekt.	Indust.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	100%	6,4%	20,7%	7,2%	65,7%	68,3%	31,7%	18,3%
MINUSBALLATUAK	100%	1,2%	20,5%	9,6%	68,7%	69,6%	30,4%	8,7%
SUSTAPENENKOAK	100%	1,0%	17,4%	5,9%	75,7%	29,7%	70,3%	20,3%
MUGAGABE BIHURTUAK	100%	0,8%	28,2%	9,5%	61,5%	61,0%	39,0%	23,3%
MUGAGABE GUZTIAK	100%	2,5%	23,2%	7,9%	66,3%	55,4%	44,6%	21,0%
OBRA EDO ZERBITZUA	100%	2,3%	11,5%	22,0%	64,2%	60,7%	39,3%	31,2%
EKOIZPENETAKOAK	100%	1,0%	14,1%	3,7%	81,1%	49,2%	50,8%	36,7%
INTERINITATEKOAK	100%	0,4%	6,2%	0,7%	92,8%	24,9%	75,1%	24,3%
MINUSBALLATUAK	100%	1,1%	30,7%	5,1%	63,1%	64,0%	36,0%	13,0%
LANEAN TXERTATZEKOAK	100%	2,4%	0,1%	0,9%	96,6%	46,9%	53,1%	17,3%
ORDEZKAPENA (64 URTE)	100%	0,0%	40,7%	9,3%	50,0%	69,4%	30,6%	14,8%
ERRELEBU-KONTRATUAK	100%	0,3%	67,1%	4,7%	27,9%	80,9%	19,1%	22,8%
ORDEZKAPEN PARTZIALA	100%	0,2%	65,9%	5,0%	28,9%	89,0%	11,0%	0,0%
PRAKTIKAK	100%	0,3%	28,4%	10,6%	60,7%	57,5%	42,5%	67,6%
PRESTAKUNTZAKOAK	100%	0,3%	15,3%	25,8%	58,6%	63,8%	36,2%	87,2%
GAINONTZEKOAK	100%	8,0%	6,9%	1,4%	83,7%	50,1%	49,9%	18,5%
ALDI BATERAKO GUZTIAK	100%	1,4%	12,3%	10,4%	75,9%	50,0%	50,0%	32,6%
KONTRATU GUZTIAK	100%	1,5%	13,1%	10,2%	75,2%	50,4%	49,6%	31,7%

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, dagozkion aldi partzialeko kontratuak hartzen ditu kontuan.